

CC 00
Kutxabank
atal
sindikala

ccoo@kutxabank.es
kutxabank@servicios.ccoo.es

<http://www.ccoo-servicios.es/kutxabank/>

Nº 2

2016ko maiatza

HAZIA

bbk

EPSV

HAZIAren berriak

Lehengo apirilaren 28an HAZIA BBK EPSV - Borondatezko Gizarte-Aurreikuspeneko Erakundea BGAE erakundearen batzar biak egin ziren: lehenengoa, Ohiko Batzar Nagusia, 2015eko urtealdiari dagozkion kontuak onartzeko; bigarrena, Apartekoa eta Ohikoa amaitu ostean egin zena, estatutu berriak onartzeko, eta horrela indarrean dagoen lege-araudi berriari egokitzeko.



Ohiko Batzar Nagusia


HAZIA BBK EPSV-BGAE erakundearen kontuak auditoretzak bat ere arazo barik onartu zituen eta 2015erako urteko %3,91ko errentagarritasuna eman zuten.

Oso datu positiboa da, izan ere horrek enpleguko EPSV-BGAE eta pentsio-funtsen sistemaren barruko errentagarritasunean gorengo tartean kokatzen gaitu. Urtealdi berean lehenengoen batezbesteko errentagarritasuna %2,48koa izan zen (%2,88 kontuan hartzen badugu aktiboen bolumenen arabera batezbesteko haztatua); eta EPSV-BGAE garrantzitsuenetan %3,75eraino igo zen.

Errentagarritasuna

2016ko lehen hiruhilekoak enplegu-pentsioen ia plan guztiak itxi ditu errentagarritasun negatiboekin, batezbesteko arrunta %-1,12 (%-1,17 haztatua) dela, eta tartea %0,6tik -%2,9ra doala. Beste EPSV-BGAE batzuek antzerako portaera izan dute: Elkarkidetza %-1,55, Geroa %-1,28, Itzarri %-0,34.

HAZIAren kasuan, errentagarritasuna %-0,77koa izan da martxoan itxieran, eta %-0,2 gutxi gorabehera apirilean.



Errenta-garritasuna	
Urtea	%
2000	7,66
2001	6,62
2002	2,32
2003	9,77
2004	7,40
2005	7,27
2006	10,04
2007	10,78
2008	5,80
2009	5,57
2010	4,25
2011	3,46
2012	7,07
2013	7,50
2014	4,20
2015	3,90

2016ko urtealdirako estimazioak.

Urte hasieran burtsak izan duen beherakada eta errenta finakoaren tipoaren egoera kontuan hartuta, urtealdi honetarako errentagarritasun-estimazioa egiteko baldintzak Eurostoxx-en bilakaera eta urte amaierako itxiera izango dira. Era orientagarrian baino ez bada, honela koka liteke:

- A) %4, 3.500 inguruan amaitzen bada.
- B) %1, 3.000 inguruan ibilita
- C) %0,2570 gorabeherakoan, deribatuekin ziurtatzeari esker.
- D) Maila honetatik behera errentagarritasun negatiboa izango litzateke.

INBERTSIOEN PAPER-ZORROA.

HAZIAren paper-zorroaren egoera apirilaren amaieran honelakoa da:

1. Errenta finkoa. Gutxi gorabehera %75,4, (efektibo eta guzti) %3tik goraxeagoko interes-tasan eta 40 hilekoa baino beheraxeagoko batezbesteko iraupena duena.

2. Errenta aldakorra. %23. Gehienak dira Europako akzioak (%74,5), Espainiakoak (%16), AEBkoak (%4,5), Japoniakoak (%4) eta ia %1 akzio emergenteak.

Errenta aldakorra deribatuekin neurri batean ziurtatuta dago, eta horren bidez jaitsiera batek ekar lezakeen urteko errentagarritasun negatiboa gutxitu nahi da.

Errenta aldakorra.	
Banaketa	
Europa	%74,50
Espainia	%16,00
AEB	%4,50
Japonia	%4,00
Emergenteak	%1,00

3. Bestelako inbertsio alternatiboak. %1,8



Eta etorkizunean..... zer?

Hurrengo urteetako errentagarritasunak beherantz egingo du ezinbestean. Errenta finkoaren berrinbertsioak gaur nekez egiten dira %1ean, eta horrek berak ekarriko du diru-zorro honen batezbesteko errentagarritasunak (orain %3ren bueltakoak) behera egitea.

Beraz, errentagarritasun handiagoa lortzeko, errenta aldakorraren gainbalioen (eta, jakina, minusbalioen) mende egongo gara gero eta gehiago. Zentzuz jokatuta, honelako errenta-motan %25eko muga jarri diogu geure buruari.

Hala eta guztiz ere, gure helburua, hau da **inflazioaren gaineko errentagarritasuna lortzea eta beraz bazkideen saldoen balioari eusteko helburua** arrakasta biribila izan da, beti ere kontuan izanda azken hiru urteetan (2013ko urtarriletik 2016ko urtarrilera) metatutako IPC - Kontsumoko Prezioen Indizea KPIa INEren arabera Espainian %-1,4koa eta EAEn %-0,3koa dela.



Aparteko Batzar Nagusia

Gorago esan dugun moduan, gai-zerrendako bakarria Estatutuen aldaketa izan zen, indarrean dagon lege-araudi berriari egokitzeko. Aldaketa horrek ez dauka ezer azpimarragarririk.

Beste alde batetik, HAZIAk dituen gobernu-organuan interesgarriak izan daitezkeen beste gai batzuk ere aztertu dira:

- 1) Alde sozialak aintzakotzat hartuko dituen inbertsio-politika ezartzeko bidean aurrera goaz. Gauza ere ez da orain arte ez dirala kontuan hartu, baizik eta era estandarragoan kontrolatzeko prozedurak finkatuko direla, halako fondo-gaietan Europako Iparraldean tradizio luzean erabili izan direnak gidari ditugula. Honi buruz HAZIAren batzordeak izan beharreko jarrera lege-araudi berriak berak eskatutakoa da.



CCOO



- 2) 2016rako enpresak proposatutako auditorea gehiengoak onartu arren, langileen ordezkariok adierazi dugu hurrengo urteetarako kontuak auditatzeko Kutxabankekoak egiten ez dituen beste bat izan beharko dela. Jarrera honek ez dakar mesfidantzarik oraingo auditoretzaren lanaren gainean, baina batez ere higiene irizpide bategatik eta EPSV-BGAE erakundearen gaineko diagnostikoaren dibertsifikazioarengatik egiten da.



Diru-bilketako administrazio atala (d.a.a.)
Uribitarte kalea, 4 - 48001 Bilbao
Tfnoa.: 94 424 34 24 - Faxa: 94 424 36 12
Helbide elektronikoa: mortega@euskadi.ccoo.es

A KODEA

Afiliazio Alta
Datu Aldaketa

CCOOn AFILIATZEKO ESKAERA ORRIA

DATU PERTSONALAK

N.A.N.-A.I.Z.	L	ABIZENAK	IZENA			
BIDE M.	BIDEAREN IZENA, ATARIA ETA SOLAIRUA		POSTA KODEA	HERRIA		
JA IOTEGUNA	HERRIALDEA/NAZIONALITATEA		SEXUA	LANBIDEA		
TELEFONO FINKOIA	TELEFONO MUGIKORRA	HELBIDE ELEKTRONIKOIA	EUSKARA MAILA			
			EZ	BAXUA	ERTAL	ALTUA

DATU SINDIKALAK

AFILIAZIO FITXA	ALTAREN ARRAZIOA	ALTAREN JATORRIA	LAN EGOERA
-----------------	------------------	------------------	------------

ENPRESAREN DATUAK

ENPRESAREN I.F.Z.	GIZARTE SEGURANTZAKO ZKIA.	ENPRESA/LANTOKIAREN IZENA	
BIDE M.	BIDEAREN IZENA. HERRIA	POSTA KODEA	LANTOKIA
ENPRESAREN JARDUERA NAGUSIA		FEDERAZIOA	SEKTOREA
LANTOKIKO TELEFONOA	KATEGORIA PROFESIONALA	HITZARMENA	KONTRATU MOTA

KUDEAKETA DATUAK

KOBRATZEKO MODUA	KOD.	KOBRATZEKO LEHEN HILEA	KUOTA MOTA	KOD.	HILEKO ZENBATEKOAREN
ERAKUNDEAREN ZIGILU ETA SINADURA		BESTE DATU ETA OHAR BATZUK			

Izaera Pertsonaleko Datuen Babeserako Lege Organikoaren arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak CCOOren titulartasuneko fitxategi batetara erantsi direla. Fitxategi hau Konfederazioko, zure lantokia dagoen herriaren arabera lurraldeko batasuneko, lan egiten duzun enpresako sektorearen arabera federazioko, baita -kasu guztietan bezala- CCOOko Konfederazio Sindikaleko fitxategiekin osatuta dago. Horien guztien helburua zure datuen erabilerarekin afiliaturekiko harremana mantentzea da. Zure datuetara sartu, hauek zuzendu, bertan behera utzi eta aurkakotasuna agertu dezakezu, NANaren fotokopiarekin goian aipatutako helbidera idatzi bat bidalita.

Baimena ematen diot CCOOko K.S.ari ordaindutako kuoten inguruko datuak dagokion Lurralde Ogasunari emateko, PFEZan zergak arintzeko helburuarekin.

AFILIATUAREN SINADURA

ZORDUNTZE ZUZENETIKO HELBIDERATZE AGINDUA SEPA

Helbideratze Agindu honen eskabidea sinatzearekin baimena ematen diozu (A) CCOO Diru-Bilketa Administrazio Atalari zeure finantza entitateari zure kontuan kargatzeko aginduak bidaltzeko eta (B) zure finantza entitateari dagozkion kopuruak zure kontuan kargatzeko CCOO Diru-Bilketa Administrazio Atalaren aginduen arabera. Zure eskubideen parte moduan, zure finantza entitatearekin hitzartutako kontratuko baldintza eta terminoekin bat eginda zure finantza entitateak egindako diru-itzulketak egiteko eskubidea daukazu. Diru-itzulketak hori zure kontuan kargatu denetik 8 asteko epe barruan eska dezakezu.

Zordunaren Datuak

Izena						
Helbidea						
	P.K.	Herria			Herrialdea	
Kontua	Iban	Entitat.	Sukursal.	KD	Kontua	SWIFT BIC
BANKU ENTITAREAREN IZENA					HELBIDEA	

Hartzekodunaren Datuak

Izena	CCOO UNIDAD ADMINISTRATIVA DE RECAUDACIÓN (UAR) C/ CARACAS, 6 - 1º EXT. DERECHA. 28010 MADRID (ESPAÑA)					
Ordainketa m.	Aldizkakoa	Bakarra	Kontzeptua	Eskaera sinatu den herria		Data
	x		KUOTA SINDIKALA			

NAN edo AIZ

Sinadura